OÑATI dabilen herria

**ZIRKULAZIOARI ETA HERRI BARRUKO BIDEEN ERABILEREI BURUZKO UDAL ORDENANTZA**

ORDENANZA MUNICIPAL DE CIRCULACIÓN Y DE LOS USOS DE LAS VÍAS URBANAS

| | | |
|---|---|---|
| **ATARIKO TITULUA. XEDEA, APLIKAZIO-EREMUA, ESKUMENAK ETA KONTZEPTUAK** | | **TITULO PRELIMINAR. OBJETO, ÁMBITO DE APLICACIÓN, COMPETENCIAS y CONCEPTOS** |
| **1. Artikulua. Xedea**<br>Ordenantza hau Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 25.2.g artikuluak (abenduaren 27ko 27/2013 Legearen bidez egindako aldaketa, 1.8 art.) trafiko- eta zirkulazio-arloan udalerriari emandako eskumenaren arabera eman da. Eta eman da ere Oñatiko udalerriko bideetako trafikoaren egungo egoerara egokitu behar delako 18/2021 Legearen ondorioz (abenduaren 20koa, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina — urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua — aldatzen duena puntukako gidabaimenei eta gidalizentziei dagokienez). | | **Artículo 1. Objeto**<br>La presente Ordenanza se dicta en virtud de la competencia atribuida al municipio en materia de tráfico y circulación por la Ley 7/85 de 2 de abril reguladora de las Bases de Régimen Local, en su art. 25.2.g, modificación introducida por la Ley 27/2013 de 27 de diciembre art. 1.8, así como por la necesidad de una adaptación a la situación actual del tráfico y usos de las vías del término municipal de Oñati derivado de la Ley 18/2021, de 20 de diciembre, por la que se modifica el texto refundido de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, aprobado por el Real Decreto Legislativo 6/2015, de 30 de octubre, en materia del permiso y licencia de conducción por puntos |
| **Aplikazio-eremua** | | **Ámbito de aplicación** |
| **2. Artikulua**<br>Ordenantza honetako agindauak udalerri osoan aplikatuko dira, hiri barruko eta hiriarteko bideetan, horien eskumena Udalari laga bazaio. Ordenantza honetako aginduak aplikatuko zaizkie: zirkulaziorako egokiak diren hiriko bide eta lursail publikoetako titular eta erabiltzaileei; zirkulaziorako egokiak ez izan arren, erabilera komuneko bide eta lurren erabiltzaileei; eta, beste araurik ezean, zehaztu gabeko erabiltzaile-talde batek erabiltzen dituen bide eta lursail pribatuen titularrei. | | **Artículo 2**<br>Los preceptos de esta ordenanza serán aplicables en todo el término municipal en las vías urbanas y en las interurbanas cuya competencia hubiera sido cedida al Ayuntamiento. Obligarán a personas titulares y usuarias de las vías y terrenos públicos urbanos aptos para la circulación, a las de las vías y terrenos que, sin tener tal aptitud sean de uso común y en defecto de otras normas, a las/los titulares de las vías y terrenos privados que sean utilizados por una colectividad indeterminada de personas usuarias. |
| **3. Artikulua**<br>Udal-eskumeneko bideak, betiere, ordenantza honen I. eranskinean jasotakoak dira. | | **Artículo 3**<br>En todo caso, son vías de competencia municipal las que recoge el Anexo- I de esta ordenanza. |
| **4. Artikulua. Arau subsidiarioak**<br>Ordenantzak berariaz arautzen ez dituen gaietan, edo ordenantzaren arabera udal-agintaritzak arautzen ez dituen gaietan, honako hauek aplikatuko dira: Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua –urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsia– , ondorengo aldaketak eta garapen-erregelamenduak. | | **Artículo 4. Normas subsidiarias**<br>En aquellas materias no reguladas expresamente por la ordenanza, o que regule la autoridad municipal en virtud de la misma, se aplicará el texto articulado de la Ley sobre Tráfico Circulación de todos los Vehículos y Seguridad Vial, aprobado por el Real Decreto Legislativo 6/2015 de 30 de octubre, sus posteriores modificaciones y reglamentos de desarrollo. |
| **Udal-eskumenak**<br>**5. Artikulua.**<br>Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 7. eta 39.4 artikuluetan, ondorengo aldaketak eta hura garatzeko arauetan ematen zaizkion eskumenak baliatuko ditu Udalak. | | **Competencias municipales**<br>**Artículo 5.**<br>El Ayuntamiento ejercerá las competencias que le son encomendadas en los artículos 7 y 39.4 del RDL 6/2015 de 30 de octubre del texto articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de todos los Vehículos y Seguridad Vial, sus posteriores modificaciones y normas de desarrollo. |
| **6. Artikulua**<br>Bere titulartasuneko herri barruko bideetako trafikoa antolatzea eta kontrolatzea, bai eta trafikoa zaintzea ere agente propioen bidez. Bide horietan egiten diren arau-hausteak salatzea; eta zehapenak ezartzea, berariaz beste administrazio bati esleitu ez zaizkionean. | | **Artículo 6**<br>La ordenación y el control del tráfico en las vías urbanas de su titularidad, así como su vigilancia por medio de agentes propios, la denuncia de las infracciones que se cometan en dichas vías y la sanción de las mismas cuando no esté expresamente atribuida a otra Administración. |

**ZIRKULAZIOARI ETA HERRI BARRUKO BIDEEN ERABILEREI BURUZKO UDAL ORDENANTZA**
ORDENANZA MUNICIPAL DE CIRCULACIÓN Y DE LOS USOS DE LAS VÍAS URBANAS

| | | |
|---|---|---|
| **7. Artikulua**<br>Hiri barruko bideen erabilerak udal ordenantza bidez arautzea, erabiltzaileentzako aparkalekuen banaketa ekitatiboa bateragarri izan dadin ibilgailuen trafikoaren beharrezko arintasunarekin eta oinezkoen erabilerarekin, bai eta aparkaldi mugatuko neurriak ezartzea ere, aparkalekuen txandaketa bermatzeko, arreta berezia jarriz mugikortasuna murriztuta duten eta ibilgailuak erabiltzen dituzten desgaituen premiei. Horretarako, ekintza positiboko neurriak ezarriko dira, gizarteratzen eta gizartean parte hartzen laguntzeko. | | **Artículo 7**<br>La regulación mediante ordenanza municipal de los usos de las vías urbanas, haciendo compatible la equitativa distribución de los aparcamientos entre las personas usuarias con la necesaria fluidez del tráfico rodado y con el uso peatonal de las calles, así como el establecimientos de medidas de estacionamiento limitado, con el fin de garantizar la rotación de los aparcamientos, prestando especial atención a las necesidades de las personas con discapacidad que tienen reducida su movilidad y que utilizan vehículos, estableciendo para ello medidas de acción positiva con el fin de favorecer su inclusión y participación social. |
| **8. Artikulua**<br>Ibilgailuak herri barruko bideetan ibilgetzea, baldin eta aparkatzeko gaitzen duen titulurik (TAO) ez badute edo emandako baimena gainditzen badute gidariaren identifikazioa lortu arte. | | **Artículo 8**<br>La inmovilización de los vehículos en vías urbanas cuando no se hallen provistos de título que habilite el estacionamiento en zonas limitadas en tiempo (OTA) o excedan de la autorización concedida hasta que se logre la identificación de su conductor. |
| **9. Artikulua**<br>Ibilgailuak herri barruko bideetatik kentzea eta gordetzea, zirkulazioa oztopatzen edo zailtzen dutenean, zirkulazioa arriskuan jartzen dutenean edo aparkaldi mugatuko eremuetan gaizki aparkatuta daudenean, ordenantza honetan aurreikusitako baldintzetan. | | **Artículo 9**<br>La retirada de los vehículos en vías urbanas y el posterior depósito de aquellos cuando obstaculicen o dificulten la circulación o supongan un peligro para ésta o se encuentren incorrectamente aparcados en las zonas de estacionamiento restringido, en las condiciones previstas en esta ordenanza. |
| **10. Artikulua**<br>Kirol-probak egiteko baimena ematea, oso-osorik herrigunetik igarotzen direnean, zeharbideak izan ezik. | | **Artículo 10**<br>La autorización de pruebas deportivas cuando discurran íntegra y exclusivamente por el casco urbano, exceptuadas las travesías. |
| **11. Artikulua**<br>Herri barruko bideak ixtea, beharrezkoa denean. | | **Artículo 11**<br>El cierre de vías urbanas cuando sea necesario |
| **12. Artikulua**<br>Herri barruko bideetan gelditzea eta aparkatzea; zirkulazioa ez oztopatzeko neurriak hartu ahal izango dira, besteak beste, aparkatzeko ordutegi-mugak. | | **Artículo 12**<br>La parada y estacionamiento en vías urbanas, pudiendo adoptarse las medidas necesarias para evitar el entorpecimiento del tráfico, entre ellas, limitaciones horarias de duración del estacionamiento. |
| **13. Artikulua. Kontzeptuak**<br>Ordenantza honen ondorioetarako, ibilgailu, bide eta erabiltzaileei buruzko oinarrizko kontzeptuak urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren I. eranskinean eta haren ondorengo aldaketetan zehazten den zentzuan erabili direla ulertuko da. | | **Artículo 13. Conceptos**<br>A los efectos de esta ordenanza, los conceptos básicos sobre vehículos, vías y usuarios se entenderán utilizados en el sentido que para cada uno de ellos se concreta en el Anexo I del Real Decreto Legislativo 6/2015 de 30 de octubre LTSV y sus posteriores modificaciones. |
| **II. TITULUA. BIDE-SEGURTASUNA ZAINTZEA ETA KONTROLATZEA** | | **TITULO II. VIGILANCIA Y CONTROL DE LA SEGURIDAD VIAL** |
| **I. KAPITULUA: TRAFIKOA ZAINTZEA ETA KONTROLATZEA** | | **CAPÍTULO I: VIGILANCIA Y CONTROL DEL TRÁFICO** |
| **14. Artikulua**<br>Udaltzainei dagokie udal-titulartasuneko herri barruko bideetan trafikoa antolatzea, seinaleztatzea eta arautzea. Era berean, trafikoa argibide eta seinaleen bidez arautzea, bide-segurtasuna zaintzea eta bide horietan Ordenantza honetako eta Trafiko, Ibilgailu guztien Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legeko aginduen aurka egiten diren arau-hausteak salatzea dagokie, baita arau-hauste horiek zehatzea ere, beste administrazio bati berariaz esleitu ez bazaio.<br>Udaltzainei dagokie, halaber, hirigune barruko zirkulazio-istripuengatiko argiketen instrukzioa egitea eta edozein istripu-motatan laguntza ematea. | | **Artículo 14**<br>Corresponde a las/los agentes de la Policía Municipal las funciones de ordenar, señalizar y regular  el tráfico en las vías urbanas de titularidad municipal. También les corresponde regular el tráfico mediante indicaciones y señales, la vigilancia de la seguridad vial y la denuncia de las infracciones que se cometan en dichas vías contra los preceptos de la presente Ordenanza y la Ley de Tráfico, Circulación de todos los Vehículos y Seguridad Vial y la sanción de las mismas cuando no esté expresamente atribuida a otra Administración.<br>Corresponde también a las/los agentes de la Policía Municipal la instrucción de atestados por accidentes de circulación dentro del |

| | | |
|---|---|---|
| | | casco urbano y la prestación de auxilio en cualquier tipo de accidente. |
| **15. Artikulua**<br>Araututako aparkalekuak zaintzeaz arduratzen direnek salaketak egin ahal izango dituzte, bai aparkatzeko arau-hauste orokorrei dagokienez, bai gune horiek arautzen dituzten arau espezifikoei dagokienez. | | **Artículo 15**<br>Las personas encargadas de la vigilancia de las zonas de estacionamiento regulado, podrán instar denuncias tanto respecto a las infracciones generales de estacionamiento, como a las referidas a las normas específicas que regulen dichas zonas. |
| **II. KAPITULUA. BIDEAK SEINALEZTATZEA.** | | **CAPÍTULO II. SEÑALIZACIÓN DE LAS VÍAS.** |
| **16. Artikulua**<br>Udaltzaingoa da kasuan kasuko seinaleak jartzeko, kentzeko, aldatzeko eta ordezteko eskumena duen udal-organoa. Trafikoaren antolamendua behin-behinean aldatu ahal izango du, eta aparkalekua kendu; kasu horretan, berrogeita zortzi ordu lehenago seinaleztatuko du aparkatzeko debekua, seinaleei azalpen-legenda erantsiz, non neurri horren arrazoia eta epea adieraziko baitira.<br>Ekitaldi horretan bertan, Udaltzaingoak seinaleztapena egin aurretik aparkatuta zeuden ibilgailuen akta egingo du, eta ibilgailu horien titularrek edo gidariek bertatik kendu beharko dituzte.<br><br>Aparkatzea debekatzeko seinaleak jarri ondoren aparkatzen duten ibilgailuak garabi-zerbitzuaren bidez kendu ahal izango dira (6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 105.1.f artikulua). Kasu horretan, garabiaren esku-hartzeak ibilgailuaren jabearen kargurako tasa sortuko du.<br>Neurria hartu aurretik aparkatuta zeuden ibilgailuak, jabeek kentzen ez badituzte, garabiak organo eskudunak adierazitako lekura eraman ahal izango ditu. Kasu horretan, garabiaren esku-hartzeak ez du inolako tasarik sortuko ibilgailuaren jabearentzat. | | **Artículo 16**<br>La Policía Municipal es el órgano municipal competente para ordenar la colocación, retirada, modificación y sustitución de la señalización que en cada caso proceda. Podrá modificar provisionalmente la ordenación del tráfico y suprimir el espacio de aparcamiento, en este caso, señalizará con cuarenta y ocho horas de antelación la prohibición de estacionar incorporando a la señalización leyenda explicativa en la que expresará el motivo y el plazo de dicha medida.<br>En ese mismo acto la Policía Municipal levantará acta de los vehículos estacionados antes de la señalización, quedando obligadas/os sus titulares o conductoras/es a retirarlos del lugar.<br>Los vehículos estacionados con posterioridad a la colocación de las señales de prohibido estacionar, podrán ser retirados mediante Servicio de Grúa (art.105.1.f del RDL 6/2015). En este caso la intervención de la grúa generará tasa a cargo de la persona titular del vehículo.<br>Los vehículos que se encontraban estacionados antes de adoptarse la medida, si no fueran retirados por sus propietarios/as podrán ser desplazados por la grúa al lugar que indique el órgano competente. En este caso la intervención de la grúa no generará tasa alguna para su propietario/a. |
| **17. Artikulua**<br>Premia larriko kasuetan, seinaleztapena egiteko berrogeita zortzi orduko epea bete gabe utzi ahal izango da, eta gune horretan dauden ibilgailuak garabiak lekualdatu ahal izango ditu, ibilgailuaren jabearentzat inolako tasarik sortu gabe. | | **Artículo 17**<br>En caso de urgente necesidad, podrá prescindirse del cumplimiento del plazo de cuarenta y ocho horas de antelación para la señalización y los vehículos que se encuentren en dicha zona podrán ser desplazados por la grúa sin generar tasa alguna para su propietario/a. |
| **18. Artikulua**<br>1. Partikularrek edo enpresek ezin izango dute zirkulazio-seinalerik jarri, kendu edo aldatu udalaren baimenik gabe.<br>2. Partikularrek informazio-seinaleak instalatzeko, udalaren baimena beharko dute beti, eta berehala kenduko dira baimenean ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte. | | **Artículo 18**<br>1. Particulares o empresas no podrán colocar, ni retirar, ni modificar señales de circulación sin autorización municipal<br>2. La instalación por particulares de señales informativas requerirá en todo caso autorización municipal y serán inmediatamente retiradas en caso de que incumplan las condiciones estipuladas en la autorización. |
| **19. Artikulua**<br>Udalerriaren sarreretan jarritako aginduko seinaleak udalerri osorako izango dira, baldin eta tarte jakin baterako ez badago murriztaileagoa den seinale espezifiko bat. | | **Artículo 19**<br>Las señales preceptivas instaladas en las entradas al municipio, regirán para todo el término municipal, salvo señalización específica más restrictiva para un determinado tramo. |

**ZIRKULAZIOARI ETA HERRI BARRUKO BIDEEN ERABILEREI BURUZKO UDAL ORDENANTZA**
ORDENANZA MUNICIPAL DE CIRCULACIÓN Y DE LOS USOS DE LAS VÍAS URBANAS

| | | |
|---|---|---|
| **20. Artikulua**<br>Udal-organo eskudunak ordenantza honen xede diren bideetan obrak egiteko baimena ematen duenean, obrak egiten dituzten erakundeei edo horien enpresa esleipendunei dagokie trafikoa seinaleztatzeko eta arautzeko ardura, udal-agintaritzak ezarritakoaren arabera. Bideetako erabiltzaileek nahitaez bete beharko dituzte obra horietan trafikoa arautzen duten langileen jarraibideak, eta berariaz jarritako seinaleetan ezarritakoa ere bete beharko dute. | | **Artículo 20**<br>Cuando el órgano municipal competente autorice la ejecución de obras en las vías objeto de esta ordenanza, corresponderá a los organismos que las realicen o a las empresas adjudicatarias de las mismas, la responsabilidad de la señalización y regulación del tráfico de acuerdo a lo que la Autoridad Municipal determine. Las personas usuarias de las vías estarán obligadas a seguir las indicaciones del personal destinado a la regulación del tráfico en dichas obras así como a cumplir lo estipulado en la señalización colocada al efecto. |
| **21. Artikulua**<br>Eskumena duen udal-organoak baimena ematen duenean kirol-jarduerak egiteko edo bideetan zirkulazioa mugatzea gomendatzen duten ekintzak egiteko, emandako baimenak gaikuntza eman ahal izango die ekitaldiaren antolaketaz arduratzen diren langileei, beharrezko neurriak har ditzaten ibilgailuak edo oinezkoak eragindako eremu edo ibilbidera sar ez daitezen. | | **Artículo 21**<br>Cuando el órgano municipal competente autorice la celebración de actividades deportivas o actos que aconsejen establecer limitaciones a la circulación en las vías, la autorización expedida podrá habilitar al personal responsable de la organización del evento para que tome las medidas necesarias encaminadas a impedir el acceso de vehículos o peatones a la zona o itinerario afectados |
| **III. KAPITULUA. BIDE PUBLIKOAREN ERRESERBAK** | | **CAPÍTULO III. RESERVAS DE LA VÍA PÚBLICA** |
| **22. Artikulua**<br>Ibilgailuen zirkulazioa moztea dakarten obrak egiteko, Udaltzainburuaren berariazko baimena beharko da. | | **Artículo 22**<br>La realización de obras que impliquen corte del tráfico rodado deberá contar con la autorización expresa de la Jefatura de la Policía Municipal. |
| **23. Artikulua**<br>Obrak egiteko espaloiak, oinezkoentzako guneak, bizikleta-bideak edo zirkulazio-erreiak okupatzeko –edo edukiontziak edo beste edozein elementu edo objektu modu iraunkorrean edo behin-behinekoz jartzeko–, dagokion udal-baimena izan beharko da, bete beharreko baldintza bereziak jasoko dituena.<br><br>Emandako baimena baliogabetu ahal izango du udal-agintaritza eskudunak trafikoaren inguruabarrek edo antzeko beste batzuek hala gomendatzen dutenean edo baimenean ezarritako baldintzak betetzen ez direnean. | | **Artículo 23**<br>La ocupación de aceras, zonas peatonales, vías ciclistas o carriles de circulación para la realización de obras, colocación de contenedores o de cualquier otro elemento u objeto de forma permanente o provisional, necesitará contar con la autorización municipal correspondiente que recogerá las condiciones particulares que deberán cumplirse.<br>La autoridad municipal competente podrá revocar la autorización otorgada cuando las circunstancias del tráfico u otras de análoga naturaleza, así lo aconsejen o cuando se incumplan las condiciones estipuladas en la autorización. |
| **24. Artikulua**<br>Baimenak aparkalekuak okupatzea badakar, baimendutako jarduera hasi baino berrogeita zortzi ordu lehenago, Udaltzaingoak R308 seinalearen bidez seinaleztatuko du libratu beharreko eremua. Erreserba-eremua behar bezala seinaleztatu ondoren, debekatutako aparkaleku bihurtzen da, eta ez-betetzeak ekar ditzakeen ondorioak izango ditu. | | **Artículo 24**<br>En caso de que la autorización conlleve ocupación de zonas de aparcamiento, cuarenta y ocho horas antes del comienzo de la actividad autorizada, la Policía Municipal señalizará mediante la señal R308, la zona a librar. Señalizada correctamente la zona de reserva constituye zona de estacionamiento prohibido con las consecuencias que en caso de incumplimiento se pudieran derivar |
| **25. Artikulua**<br>1. Udal-agintaritzak ofizioz kenduko ditu oztopoak edo bere eskumeneko bide publikoan jarritako beste edozein elementu, honako egoera hauetakoren bat gertatzen denean:<br>a) Organo eskudunaren baimenik ez izatea.<br>b) Baimenean ezarritako epea amaitzea.<br>c) Baimenean ezarritako baldintzak ez betetzea.<br>d) Baimena emateko arrazoiak desagertzea<br>2. Halaber, oztopoak kenduko ditu, segurtasun-arrazoiengatik, obrak egiteagatik, ikuskizunen bat egiteagatik, baimendutako segizioak pasatzeagatik eta neurri hori justifikatzen duten beste kasu batzuengatik beharrezkoa denean. | | **Artículo 25**<br>1. La autoridad municipal procederá de oficio a la retirada de los obstáculos o de cualquier otro elemento colocado en la vía pública de su competencia, cuando se dé alguna de estas circunstancias:<br>a) Carezca de la autorización del órgano competente<br>b) Haya vencido el plazo fijado en la autorización<br>c) Se incumplan las condiciones fijadas en la autorización<br>d) Desaparezcan las causas que motivaron la autorización<br>2. Procederá así mismo a la retirada de los obstáculos, cuando resulte necesario por razones de seguridad, realización de obras, celebración de algún espectáculo, paso de comitivas autorizadas y otros supuestos que justifiquen tal medida. |

| | | |
|---|---|---|
| **26. Artikulua**<br>Baimena indarrean dagoen bitartean, ordenantza honen xede diren bide publikoetan edozein jarduera egiteko baimena duen pertsona fisiko edo juridikoak garbiketa eta segurtasun-baldintza egokietan eduki beharko ditu eragindako eremuak, ibilgailuen eta pertsonen zirkulaziorako.<br>Era berean, baimena eragin zuten egintzak amaitzean, bideak erabat libre geratu beharko dira, eta eragindako kalteen erantzukizuna baimenaren titularrek izango dute. | | **Artículo 26**<br>Durante el período en que la autorización esté vigente, particulares o empresas autorizadas para la realización de cualquier actividad en las vías públicas objeto de esta ordenanza, estarán obligadas a mantener las zonas afectadas en óptimas condiciones de limpieza y seguridad tanto para la circulación de vehículos como para el tránsito de personas.<br>Así mismo al término de los actos que motivaron la autorización, las vías deberán quedar libres y expeditas, debiendo responder los titulares de la autorización de los desperfectos ocasionados. |
| **IV. KAPITULUA: SALBUESPENEZKO ZIRKULAZIO-NEURRIAK** | | **CAPÍTULO IV: DE LAS MEDIDAS EXCEPCIONALES DE CIRCULACIÓN** |
| **27. Artikulua**<br>Garraio bereziak Oñatiko udalerritik igarotzeko, Udaltzainburuaren baimena beharko da beti.<br>Baimen hori udalerrian sartzeko aurreikusitako eguna baino gutxienez zazpi egun baliodun lehenago eskatuko da. Eskaerak udalerrian sartzeko eta igarotzeko ordutegia eta ibilbidea adieraziko ditu. Udaltzaingoak egiaztatuko du ibilbidea, eta aldatu ahal izango du segurtasun-arrazoiak direla-eta. Eskatzaileak, eskaera onartu ondoren, ibilbidea egiaztatuko du eta haren bideragarritasunaren erantzukizuna bere gain hartuko du.<br>Garraio bereziek, udal-titulartasuneko bideetatik igarotzean, udaltzainen edo ertzainen laguntza izango dute beti. | | **Artículo 27**<br>El tránsito de transportes especiales por el término municipal de Oñati requerirá en todo caso autorización de la Jefatura de la Policía Municipal<br>Dicha autorización será solicitada con una antelación mínima de siete días hábiles a la fecha prevista para su entrada en el municipio. La solicitud indicará el horario de entrada y tránsito en el término municipal y el itinerario, que será comprobado por la Policía Municipal, quien podrá modificarlo atendiendo a razones de seguridad. Una vez aprobada la petición, la persona solicitante comprobará el itinerario y asumirá la responsabilidad de su viabilidad.<br>En su tránsito por las vías de titularidad municipal, los transportes especiales siempre irán acompañados por agentes de la policía municipal o de la ertzaintza. |
| **III. TITULUA**<br>**BIZIKLETEN ETA MUGIKORTASUN PERTSONALEKO IBILGAILUEN ZIRKULAZIOA ETA APARKATZEA** | | **TÍTULO III**<br>**CIRCULACIÓN Y ESTACIONAMIENTO DE BICICLETAS Y VEHÍCULOS DE MOVILIDAD PERSONAL** |
| **I. KAPITULUA. BIZIKLETEN ZIRKULAZIOA** | | **CAPÍTULO I. CIRCULACIÓN DE BICICLETAS** |
| **28. Artikulua**<br>Bizikletak ibilgailuak dira, eta indarrean dagoen trafiko-araudiaren mende daude. Beraz, erabiltzaileek 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuak eta haren ondorengo aldaketek eta regulazio propioak jasotzen dituzten zirkulazio-arau orokorrak bete beharko dituzte. | | **Artículo 28**<br>Las bicicletas son vehículos y como tales están sujetos a la normativa de tráfico vigente por lo que quienes la utilicen deberán cumplir las normas generales de circulación que el RDL 6/2015 y sus posteriores modificaciones y regulación específica recogen. |
| **29. Artikulua**<br>1. Arau orokor gisa, bizikletak galtzadatik ibiliko dira, eta paraleloan zirkulatu ahal izango dute. Ahal dela, espaloietatik hurbilen dauden erreietatik ibiliko dira, eta ibilgailuek lehenago pasatzeko duten eskubideaz gozatuko dute, indarrean dauden trafiko-arauen arabera. Ezkerrera biratzea baimenduta badago, txirrindulariek bidezkoak diren biraketa-erreiak erabili ahal izango dituzte<br>2. Hiru metro baino gutxiagoko zabalera duten espazio baimenduetatik zirkulatzen dutenean, linean zirkulatuko dute, paraleloan edo taldean zirkulatzea saihestuz.<br>**3.** Bizikletentzat gordetako erreiak daudenean, bertatik zirkulatu behar dute, gainerako ibilgailuentzat aurreikusitako seinaleak eta lehentasun-arauak errespetatuz. | | **Artículo 29**<br>1. Como norma general las bicicletas circularán por la calzada, permitiéndose la circulación en paralelo. Lo harán preferentemente por los carriles más próximos a las aceras, y gozarán de las prioridades de paso que tienen los vehículos según las vigentes normas de tráfico. En el caso de giro autorizado a la izquierda, los ciclistas podrán hacer uso de los carriles de giro que sean procedentes.<br>2. Cuando circulen por espacios autorizados de anchura inferior a 3 metros, lo harán en línea, evitando circular en paralelo o en grupo.<br>3. Cuando haya carriles reservados para las bicicletas, circularán por ellos respetando la señalización y las normas de prioridad de paso previstas para el resto de vehículos. |

**30. Artikulua**

Bizikletek ere oinezkoek lehentasuna duten eremuetatik zirkulatu ahal izango dute (II. eranskina) baldin eta:

1. Eremu horien hasieran dauden seinaleak errespetatzen badituzte
2. Oinez doazen pertsonen lehentasuna errespetatzen badute
3. 10 km/h-tik gorako abiadura gainditzen ez badute, eta beti oinezkoen presentzia handiagoaren edo txikiagoaren arabera egokitzen badute abiadura.
4. Oinezko bat gainditu edo gurutzatzean, gutxienez metro bateko segurtasun-distantzia badago.
5. Oinezkoen segurtasunari eragin diezaioketen maniobrarik egiten ez badute.

Oinezkoen pilaketak daudenean oinez joan beharko dute. Artikulu honetan adierazitako ondorioetarako, pilaketa dagoela ulertuko da bizikletaren eta oinezkoen artean metro bateko distantzia gorde ezin denean edo lerro zuzenean 5 metro jarraian zirkulatu ezin denean, ahal dela bidearen erditik.

Artikulu honi buruzko arau-hausteak arinak izango dira

**Artículo 30**

Las bicicletas también podrán circular por zonas de prioridad peatonal (Anexo II) siempre que:

1. Respeten la señalización existente al inicio de dichas zonas
2. Respeten la preferencia de paso de las personas que circulan a pie
3. La velocidad no exceda en ningún caso de 10km/h, adecuándola en todo caso a la mayor o menor presencia de personas que circulan a pie
4. Mantengan una distancia de seguridad mínima de un metro al rebasar o cruzarse con una persona que circule a pie
5. No realicen maniobras que puedan afectar a la seguridad de las personas que circulan a pie ni al resto de usuarias/os de la vía.

En momentos de aglomeración peatonal tendrán que circular a pie.

A los efectos expresados en este artículo, se entenderá que hay aglomeración cuando no sea posible conservar un metro de distancia entre la bicicleta y las personas que circulan a pie o cuando no sea posible circular sobre la bicicleta 5 metros en línea recta de manera continuada y preferentemente por el centro de la vía.

Las infracciones a este artículo tendrán la consideración de leves.

**31. Artikulua**

Bizikletek ezingo dute inola ere espaloietan zirkulatu, 12 urtetik beherako adingabeek izan ezik; horiek zirkulatu ahal izango dute, baldin eta oinezkoen dentsitateak horretarako aukera ematen badu, beren abiadura oinezkoen abiadurara egokitzen badute eta pertsona heldu baten ardurapean zirkulatzen badute.

Oinezkoen pasabideetan, bizikletentzako pasabide espezifikorik ez dagoenean, txirrindulariak bizikletatik jaitsi eta oinezkoen pasabidea oinez gurutzatu beharko du, oinezko gisa.

**Artículo 31**

En ningún caso podrá permitirse el tránsito de bicicletas por aceras, a excepción de menores de 12 años que podrán hacerlo siempre que la densidad de peatones lo permita, adecúen su velocidad y lo hagan bajo la responsabilidad de una persona adulta.

En los pasos de peatones que no cuenten con paso específico para bicicletas, quien conduce la bicicleta deberá bajarse de la misma para cruzar el paso a pie.

**32. Artikulua**

Arau orokor gisa, bizikletek debekatuta dute:

1. Beste ibilgailu batzuei helduta zirkulatzea
2. Ibilgailuen edo oinezkoen artean sigi-sagan zirkulatzea
3. Soinua hartzeko edo erreproduzitzeko aparatuei konektatutako entzungailuak erabiliz zirkulatzea
4. Bizikleta erabiltzea zailtzen duten edo ikuseremua murrizten duten objektuak, animaliak edo pertsonak eramatea.

**Artículo 32**

Como norma general se prohíbe que las bicicletas:

1. Circulen cogidas a otros vehículos
2. Circulen en zigzag entre vehículos o peatones
3. Circulen utilizando auriculares conectados a aparatos receptores o reproductores de sonido
4. Carguen la bicicleta con objetos, animales o personas de forma que dificulten su utilización o reduzcan el campo de visión.

**33. Artikulua. Pertsonen eta kargen garraioa**

1. Bizikletek animaliak edo salgaiak garraiatzeko atoi homologatua eraman ahal izango dute, egunez eta ikuspena murriztu gabe zirkulatuz, baldin eta gidaria adinez nagusia bada eta bere ardurapean bada.
2. Bizikletek, gidaria adinez nagusia denean eta bere ardurapean, zazpi urtera arteko adingabeak garraiatu ahal izango dituzte, eserleku gehigarrietan edo bizikletei egokitutako atoietan, behar bezala ziurtatuta eta homologatuta badaude eta gailu horiek ezartzen dituzten pisu-mugak errespetatuz. Adingabeek nahitaez eraman beharko dute kasko homologatua.

**Artículo 33. Transporte de personas y cargas**

1. Las bicicletas podrán llevar remolque homologado para el transporte de animales o mercancías, circulando de día y sin disminución de la visibilidad, siempre y cuando el conductor sea mayor de edad y bajo su responsabilidad.
2. Las bicicletas podrán transportar cuando el conductor sea mayor de edad y bajo su responsabilidad menores de hasta siete años en asientos adicionales o remolques acoplados a las bicicletas, debidamente certificados y homologados, con las limitaciones de peso que estos dispositivos estipulen. Las/los menores tendrán que llevar obligatoriamente casco homologado.

| | | |
|---|---|---|
| 3. Pertsonak eta zamak ibilgailuan egoki kokatuta garraiatuko dira:<br>a. Ezin dira arrastaka eraman, osorik edo zati bat erori, edo modu arriskutsuan mugitu<br>b. E dute ibilgailuaren egonkortasuna arriskuan jarriko<br>**c.** Ez dituzte argi-gailuak edo elementu islatzaileak ezkutatuko | | 3. El transporte de personas o carga deberá efectuarse de tal forma que no pueda:<br>a. Arrastrar, caer total o parcialmente, o desplazarse de forma peligrosa<br>b. Comprometer la estabilidad del vehículo<br>c. Ocultar los dispositivos de alumbrado o elementos reflectantes |
| **34. artikulua. Aparkatzea**<br>Bizikletak berariaz horretarako egokitutako espazioetan aparkatuko dira. Halako espaziorik ez badago edo leku guztiak okupatuta badaude, beste leku batzuetan aparkatu ahal izango dira, betiere oinezkoentzako zirkulazioa, ibilgailuen zirkulazioa, atarietarako edo saltokietarako sarbidea oztopatzen ez badute eta ohiko erabilerari kalterik egiten ez badiote edo elementu horietan edo erakusleihoetan edo fatxadetan kalteak eragiten ez badituzte.<br>Berariaz debekatuta dago bizikletak aparkatzea:<br>1. Desgaitasuna duten Pertsonek Aparkatzeko Europako Txartelaren titularrak diren mugikortasun urriko pertsonen ibilgailuentzat erreserbatutako aparkalekuetan (martxoaren 22ko 50/2016 dekretuak arautzen duena)<br>2. Jendearentzat zabalik dauden lokaletako larrialdi-irteeren aurrean.<br>3. Garraio publikoko geltokietan<br>4. Oinezkoen pasabideetan<br>**5.** Seinale bertikal edo horizontalen bidez behar bezala seinaleztatutako ibilgailu motordunentzak aparkalekuetan. | | **Artículo 34. Estacionamiento**<br>Las bicicletas estacionarán en los espacios específicamente acondicionados para tal fin, en caso de que no existieran, o se encontraran todas las plazas ocupadas, podrán estacionarse en otros lugares, siempre que no obstaculicen el tránsito peatonal, la circulación de vehículos, el acceso a portales, comercios y no perjudiquen el uso habitual o causen desperfectos en dichos elementos o en escaparates o fachadas.<br>Está específicamente prohibido estacionar las bicicletas:<br>1. En zonas de estacionamiento reservadas a los vehículos de personas con moilidad reducida titulares de la Tarjeta Europea de Estacionamiento para Personas con Discapacidad regulada en el decreto 50/2016 de 22 de marzo.<br>2. Ante las salidas de emergencia de locales destinados a establecimientos de pública concurrencia.<br>3. En paradas de transporte público<br>4. En pasos de peatones<br>5. En zonas de estacionamiento para vehículos a motor debidamente señalizados mediante señalización vertical u horizontal. |
| **35. Artikulua. Ekipamendua**<br>1. Bizikletek txirrina eta argiztapen-sistema homologatua izan behar dute; aurrealdeko argia zuria izango da eta atzealdekoa gorria.<br>Gauez zirkulatzen dutenean, argiztapen-sistema aktibatuta eraman beharko dute, eta bizikleta gidariak jantzi islatzaileren bat jantzi beharko du.<br>2. 16 urtetik beherakoek bizikletan doazenean babes-kasko homolgatua erabili behar dute beti.<br>**3.** Nolanahi ere, bizikleta-gidariak eta bidaiariek babes-kasko homologatua erabili beharko dute herriz kanpoko bidetik zirkulatzen ari direnean. | | **Artículo 35. Equipamiento**<br>1. Las bicicletas deberán disponer de dispositivo de advertencia acústica (timbre) y sistema de alumbrado homologado que en la parte delantera será de luz blanca y en la trasera de luz roja.<br>Cuando circulen de noche deberán llevar activado el sistema de alumbrado, y quien conduce la bicicleta deberá vestir al menos una prenda reflectante.<br>2. Menores de 16 años cuando circulen en bicicleta deberán utilizar siempre el casco de protección homologado.<br>3. En todo caso, conductor/a y ocupantes de bicicletas, deberán utilizar el casco de protección homologada cuando circulen por vía interurbana. |
| **II. KAPITULUA. MUGIKORTASUN PERTSONALEKO IBILGAILUEN ZIRKULAZIOA** | | **CAPÍTULO II. CIRCULACIÓN DE VEHÍCULOS DE MOVILIDAD PERSONAL** |
| **36. Artikulua**<br>Mugikortasun pertsonaleko ibilgailuaren definizioa azaroaren 10eko 970/2020 Errege Dekretuan dago jasota. Dekretu horren bidez, azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuaren bidez onartutako Zirkulazioko Erregelamendu Orokorra eta abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onartutako Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra aldatzen dira, trafikoko hiri-neurrien arloan. II. eranskineko Definizioak atalean honela definitzen da: *“gurpil bat edo gehiago dituen ibilgailua, plaza bakarra duena eta* | | **Artículo 36**<br>La definición de vehículo de movilidad personal está recogida en el Real Decreto 970/2020 de 10 de noviembre por el que se modifican el Reglamento General de Circulación aprobado por Real Decreto 1428/2003 de 21 de noviembre y el Reglamento General de Vehículos, aprobado por Real Decreto 2822/1998, de 23 de diciembre, en materia de medidas urbanas de tráfico. En el apartado Definiciones del Anexo II lo define como: *“vehículo de una o más ruedas dotados de una única plaza y propulsados por motores* |

| | | |
|---|---|---|
| *motor elektrikoz propultsatua, ibilgailuari 6 eta 25 km/h arteko gehieneko abiadura eman diezaiokeena*"<br>Mugikortasun Pertsonaleko Ibilgailuak ibilgailuak dira, eta, beraz, indarrean dagoen trafiko-araudiaren mende daude. Beraz, erabiltzaileek 6/2015 Errege Lege Dekretuan, haren ondorengo aldaketetan eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren 2022ko urtarrilaren 12ko ebazpena, mugikorasun pertsonaleko ibilgailuen ezaugarrien eskuliburua onartzen duena. | | *eléctricos que pueden proporcionar al vehículo una velocidad máxima comprendida entre 6 y 25km/h."*<br>Los Vehículos de Movilidad Personal, son vehículos y como tales están sujetos a la normativa de tráfico vigente por lo que sus usuarias/os deberán cumplir las normas generales de circulación que vienen recogidas en el RDL 6/2015 en sus posteriores modificaciones y en la Resolución de 12 de enero de 2022 de la Dirección General de Tráfico, por la que se aprueba el manual de características de los vehículos de movilidad personal |
| **37. Artikulua**<br>1. Oro har, MPIak galtzadatik ibiliko dira.<br>2. Debekatuta dago MPIak espaloietan , parkeetan eta hiri barruan dauden tuneletan ibiltzea.<br>3. Debekatuta dago MPIak oinezkoentzako guneetan, oinezkoen lehentasuneko bideetan eta plazetan ibiltzea, zamalanak egiteko izan ezik betiere horretarako ezarritako ordutegiaren barruan.<br>4. Bizikletentzat gordetako erreiak daudenean, horietan zirkulatu ahal izango dute, seinaleztapena eta pasatzeko lehentasun-arauak errespetatuz.<br>5. MPI gidariek babes-kaskoa erabili beharko dute nahitaez.<br>6. MPIak plaza bakarreko ibilgailuak dira; beraz, debekatuta dago bertan pertsona bat baino gehiago joatea.<br>7. Gauez edo ikuspena murriztua denean, MPIak argiztapen-sistema martxan eraman beharko du, eta gidariak gutxienez jantzi islatzaile bat jantzi beharko du<br>Artikulu honen arau-hausteak larritzat joko dira. | | **Artículo 37**<br>1. Como norma general los VMP circularán por la calzada.<br>2. Queda prohibido que los VMP circulen por las aceras o parques y túneles urbanos.<br>3. Queda prohibido que los VMP circulen por zonas peatonales, vías de prioridad peatonal y plazas, excepto para realizar labores de carga y descarga dentro del horario habilitado al efecto.<br>4. Cuando existan carriles reservados para las bicicletas podrán circular por ellos respetando la señalización y las normas de prioridad de paso previstas.<br>5. Quien conduce un VMP está obligado a utilizar casco de protección *(a la espera de la reforma de RGC)*<br>6. Los VMP son vehículos de una única plaza por lo que queda prohibido que en el mismo viajen más de una persona.<br>7. Durante la noche o cuando la visibilidad sea reducida, el VMP deberá llevar accionado el sistema de alumbrado, así mismo su conductor deberá vestir al menos una prenda reflectante.<br>Las infracciones a este artículo tendrán la consideración de graves |
| **38. Artikulua. Aparkatzea**<br>MPIak berariaz horretarako egokitutako espazioetan aparkatuko dira. Halakorik ez badago edo plaza guztiak okupatuta badaude, beste leku batzuetan aparkatu ahal izango dira, betiere oinezkoentzako zirkulazioa, ibilgailuen zirkulazioa, atarietarako edo saltokietarako sarbidea oztopatzen ez badute eta ohiko erabilerari kalterik egiten ez badiote edo elementu horietan edo erakusleihoetan edo fatxadetan kalteak eragiten ez badituzte.<br>Berariaz debekatuta dago MPIak aparkatzea:<br>1. Desgaitasuna duten Pertsonek Aparkatzeko Europako Txartelaren titularrak diren mugikortasun urriko pertsonentzako ibilgailuentzako erreserbatutako aparkalekuetan (martxoaren 22ko 50/2016 Dekretuak arautzen dena)<br>2. Jendearentzat zabalik dauden lokaletako larrialdi-irteeren aurrean.<br>3. Garraio publikoko geltokietan.<br>4. Oinezkoen pasabideetan.<br>5. Seinale bertikal edo horizontalen bidez seinaleztatutako ibilgailu motordunentzako aparkalekuetan. | | **Artículo 38. Estacionamiento**<br>Los VMP estacionarán en los espacios específicamente acondicionados para tal fin, en caso de que no existieran, o se encontraran todas las plazas ocupadas, podrán estacionarse en otros lugares, siempre que no obstaculicen el tránsito peatonal, la circulación de vehículos, el acceso a portales, comercios y no perjudiquen el uso habitual o causen desperfectos en dichos elementos o en escaparates o fachadas.<br>Está específicamente prohibido estacionar los VMP:<br>1. En zonas de estacionamiento reservadas a los vehículos de personas con movilidad reducida titulares de la Tarjeta Europea de Estacionamiento para Personas con discapacidad regulada en el Decreto 50/2016 de 22 de marzo<br>2. Ante las salidas de emergencia de locales destinados a establecimientos de pública concurrencia.<br>3. En paradas de transporte público<br>4. En pasos de peatones<br>5. En zonas de estacionamiento para vehículos a motor señalizados mediante señalización vertical u horizontal. |

**ZIRKULAZIOARI ETA HERRI BARRUKO BIDEEN ERABILEREI BURUZKO UDAL ORDENANTZA**
ORDENANZA MUNICIPAL DE CIRCULACIÓN Y DE LOS USOS DE LAS VÍAS URBANAS

| | | |
|---|---|---|
| **39. Artikulua. Mugikortasun pertsonaleko ibilgailuen ekipamendua**<br>MPIek honako hauek izan beharko dituzte: balaztatze-sistema bat; ohartarazpen akustikoko gailu bat (txirrina); argiak eta gailu islatzaileak, atzekoak (gorriak) eta aurrekoak (zuriak); aurreko katadioptriko islatzailea eta atzeko katadioptriko islatzailea.<br>Eserlekua izanez gero, MPI gisa hartuko dira, soilik, autoorekatze-sistema dutenak. | | **Artículo 39. Equipamiento de los VMP**<br>Los VMP deberán disponer de un sistema de frenado, de dispositivo de advertencia acústica (timbre), de luces y dispositivos reflectantes traseros (de color rojo) y delanteros (de color blanco), catadióptrico reflectante delantero y catadióptrico reflectante trasero.<br>En el caso de disponer de asiento, únicamente tendrán consideración de VMP aquellos que además cuenten con sistema de autoequilibrado. |
| **40. Artikulua**<br>12 urtera arteko adingabeek *motorrik gabeko* mugikortasun-aparatuekin zirkulatu ahal izango dute espaloietan, oinezkoentzako guneetan eta parkeetan, oinezkoen abiada berean eta inori eragozpenik eta arriskurik sortu gabe. | | **Artículo 40**<br>Las y los menores de hasta 12 años podrán circular por aceras, zonas peatonales y parques con aparatos de movilidad *sin motor*, al mismo paso que los peatones y sin causar molestias ni riesgos para nadie. |
| **IV. TITULUA. ABIADURA-MUGAK**<br><br>**KAPITULU BAKARRA. ABIADURA-MUGAK HERRIAN** | | **TÍTULO IV. LÍMITES DE VELOCIDAD**<br><br>**CAPÍTULO ÚNICO. LÍMITES DE VELOCIDAD EN POBLADO** |
| **41. Artikulua**<br>Udal-titulartasuneko bide publikoetan, ibilgailuen kategoria edozein dela ere abiadura ezin izango da 30 km/h-tik gorakoa izan, hargatik eragotzi gabe berariaz seinaleztatuko diren beste erregulazio murriztaileago batzuk.<br>Espaloirik gabeko kaleetan eta oinezko asko ibiltzen diren kaleetan, ibilgailu guztiek abiadura 10 km/h-ra murriztuko dute, eta gainerako erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko behar diren neurriak hartuko dituzte. | | **Artículo 41**<br>En las vías públicas de titularidad municipal la velocidad de los vehículos cualquiera que sea su categoría no podrá superar los 30km/h, sin perjuicio de otras regulaciones más restrictivas que serán expresamente señalizadas.<br>En las calles sin aceras y en las de gran afluencia de peatones, todos los vehículos reducirán la velocidad a 10km/h adoptando las precauciones necesarias para mantener la seguridad del resto de usuarias/os. |
| **42. Artikulua**<br>Abiadura-mugak handitu ahal izango dira herri barruko zeharbideetan, dagokion seinaleztapena erabiliz, baina ezingo dira inola ere gainditu herritik kanpoko zeharbideetarako ezarritako muga generikoak | | **Artículo 42**<br>Los límites de velocidad podrán ser ampliados mediante el empleo de la correspondiente señalización en las travesías dentro del poblado, sin rebasar en ningún caso los límites genéricos establecidos para dichas vías fuera de poblado. |
| **V. TITULUA. AZPIEGITURAK**<br><br>**I KAPITULUA. OINEZKOEN LEHENTASUNEKO EREMUAK** | | **TÍTULO V. INFRAESTRUCTURAS**<br><br>**CAPÍTULO I. DE LAS ZONAS DE PRIORIDAD PEATONAL** |
| **43. Artikulua. Oinezkoak**<br>Oinezkoek espaloietatik, pasealekuetatik, oinezkoen guneetatik eta oinezkoen lehentasuneko eremuetatik ibili beharko dute, beste oinezkoen zirkulazioa oztopatu gabe. Desgaitasuna duten pertsonek lehentasuna izango dute beti, mugikortasuna murriztuta baitute.<br>Oinezkoentzako gunerik edo espaloirik ez badago, bazterbidetik edo galtzadatik zirkulatu ahal izango dute, behar diren neurriak hartuta. Galtzadak eta bizikleta-bideak seinaleztatutako pasaguneetatik zeharkatuko dituzte, eta, halakorik ez dagoenetan, ziurtatu beharko dute beren segurtasuna eta gainerako erabiltzaileena arriskuan jarri gabe eta eragozpenik sortu gabe zeharkatu dezaketela. | | **Artículo 43. Peatones**<br>Las personas que circulan a pie transitarán por las aceras, paseos, zonas peatonales y zonas de prioridad peatonal de forma que no obstruyan la circulación de otros viandantes, gozando siempre de preferencia las personas con discapacidad, que tienen reducida su movilidad.<br>En caso de que no exista zona peatonal, ni acera, las personas que circulan a pie podrán hacerlo por el arcén o por la calzada adoptando las debidas precauciones. Atravesarán las calzadas y las vías ciclistas por los pasos señalizados y en los lugares en que carezcan de éstos, deberán cerciorarse de que pueden hacerlo sin riesgo ni entorpecimiento indebido tanto para su propia seguridad como para la del resto de usuarias/os. |

**44. Artikulua. Oinezkoen lehentasuneko eremuak**

Arau honen II. eranskinean (0 gunea) jasotako bide eta kaleek murrizketa hauek izango dituzte:

1- Seinaleztatuta egongo dira, sarreran III. eranskineko A seinalea jarriko da eta irteeran B seinalea, hargatik eragotzi gabe elementu finko (pilonak) edo trafikoa kontrolatzeko kamera sistemak jarrita, ibilgailuen sarrera eta zirkulazioa eragozteko.

2- Abiadura-muga 10 km/h-koa izango da.

3- Oinezkoek lehentasuna izango dute gainerako erabiltzaileekiko; beraz, ibilgailu motordunek, MPIek, bizikletek eta ziklomotorrek pasatzen utzi beharko diete.

4- Ibilgailu motordunek, MPIak eta ziklomotorrek II. eranskinean jasotako ordutegietatik kanpo debekatuta izango dute zirkulatzea, gelditzea eta aparkatzea, baimen orokorra, aldi baterakoa edo larrialdikoa izan ezean.

5- Araudi honen II. eranskinean jasotako ordutegi-mugen barruan, ibilgailuek eta ziklomotorrek zirkulatu, gelditu eta aparkatu ahal izango dute soilik zamalanak egiteko, betiere udalaren baimena badute. Gelditu edo aparkatuz gero, bidearen eskuineko aldean egin beharko da, libre utzi beharko dute, beti, etxebizitzetara eta establezimienduetako sartzeko ateak, baita hauen eskaparateak ere.

Baimendutako ibilgailuek, bide horietatik zirkulatzen dutenean, horretarako gaitzen dituen txartela jarri beharko dute aurreko beiraren barrualdean, kanpotik erabat ikusteko moduan (VI. eranskina: baimen-txartelaren eredua), eta baimenean ezarritako mugak errespetatu beharko dituzte. IV. eranskinean baimena eskatzeko prozedura dago jasota.

6- Desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartelaren titularrak oinezkoen lehentasuneko eremuetara sartu ahal izango dira, baldin eta, ibilgailuaren barruan, kanpotik ikusteko moduan, hala baimentzen dien txartela badaramate.

7- Zirkulatzeko eta gelditzeko mugek ez diete eragingo ibilgailu hauei:

a) Suteak itzaltzeko zerbitzuko ibilgailuak, larrialdietakoak, anbulantziak, segurtasun-indar eta -kidegoen ibilgailuak, eta zerbitzu publikoa emateko funtzioa duten gainerako ibilgailuak.

b) Udal-zerbitzuetako, bide-garbiketako eta hondakinen bilketako ibilgailuak beren eginkizunetan dihardutenean, baita hileta-zerbitzuetako ibilgailuak eta hilkutxa laguntzen doazen senideenak ere.

**Artículo 44. Zonas de prioridad peatonal**

Las vías y calles recogidas en el Anexo II (0 gunea) de la presente norma tendrán las siguientes restricciones:

1- Serán señalizadas a la entrada con la señal A recogida en el Anexo III como a la salida con la señal B del Anexo III, todo ello sin perjuicio de elementos fijos (pilonas) o de sistemas de control de tráfico mediante cámaras, que pudieran colocarse para impedir el acceso y circulación de vehículos por el interior de la zona afectada.

2- El límite de velocidad queda establecido en 10km/h

3- Las personas que transitan a pie gozan de prioridad sobre el resto de usuarias/os de la vía por lo que los vehículos a motor, VMP, bicicletas y ciclomotores deberán cederles el paso

4- Se prohíbe la circulación, parada y estacionamiento de VMP, vehículos a motor, y ciclomotores fuera de los horarios recogidos en el Anexo II (0 gunea) salvo autorización general, circunstancial o de urgencia.

5- Dentro de los límites horarios recogidos en el Anexo II de este reglamento se permite la circulación, parada y estacionamiento de vehículos y ciclomotores al único objeto de realizar las funciones de carga y descarga, siempre y cuando cuenten con autorización municipal. Las paradas y estacionamientos se harán en la parte derecha de la vía, dejando en todo caso libres las puertas de acceso a viviendas y establecimientos así como los escaparates de los mismos.

Los vehículos autorizados cuando circulen por estas vías deberán llevar colocado en la parte interior de la luna delantera del vehículo de forma totalmente visible desde el exterior, la tarjeta que les habilita a tal efecto (Anexo VI: modelo de tarjeta autorización) y respetarán los límites estipulados en la misma.

En el Anexo IV se recoge el procedimiento de solicitud de autorización.

6- Las/los titulares de tarjeta de estacionamiento para personas con discapacidad podrán acceder a las zonas de prioridad peatonal siempre y cuando lleven dentro del vehículo de forma visible desde el exterior la tarjeta que les identifica como tales.

7- Las limitaciones de circulación y parada no afectarán a los siguientes vehículos:

a) Los de servicio de extinción de incendios, emergencias, ambulancias, fuerzas y cuerpos de seguridad, y todos aquellos que tengan inherente la prestación de servicios públicos.

b) En el ejercicio de sus funciones, a los de servicios municipales, limpieza viaria y recogida de residuos, así como a los de servicios funerarios y vehículos de familiares que acompañen al féretro.

| | | |
|---|---|---|
| 8.- Aurrez aurre edo telefonoz eskaera egin ondoren, II. eranskinean jasotako guneetan sartzeko aldi baterako eta premiazko baimena eman ahal izango du Udaltzaingoak, honako irizpide hauen arabera:<br>a) Gune horietan bizi diren pertsonen gaixotasun edo ezintasun fisikoagatiko larrialdiko premiak<br>b) Eskabidearen inguruabar bereziak, eremu horietara berehala sartzea eskatzen dutenak | | 8- Previa solicitud presencial o telefónica, la Policía Municipal podrá conceder autorización circunstancial y de urgencia para la entrada en las zonas recogidas en el Anexo II, en virtud a los siguientes criterios:<br>a) Necesidades de urgencia por enfermedad o impedimento físico de las personas domiciliadas en dichas zonas<br>b) Circunstancias particulares de la solicitud que requieren el acceso inmediato a dichas zonas |
| **II. KAPITULUA. TRAFIKO PARTEKATUKO EREMUAK** | | **CAPÍTULO II. DE LAS ZONAS DE TRÁFICO COMPARTIDO** |
| **45. artikulua. Oinezkoen eta ibilgailuen arteko bizikidetza-eremua**<br>II. Eranskinean (1 GUNEA) jasotako bideak hirigunearen barruko errepide-zatiak dira, eta ordutegi jakin batean itxita egoten dira ibilgailu motordunen, MPI eta ziklomotorren zirkulaziorako.<br>1.- Ibilgailu motordunen eta ziklomotorren trafikoari irekita dauden ordutegian, lehenik eta behin oinezkoentzat dira zirkulazio-eremu horiek, eta honako arau hauek aplikatzen dira:<br>a. Bi sarrerak seinaleztatuta daude, III. eranskinean jasotako B seinalearen bidez (S-28 + R301 seinaleez osatua<br>b. Gehienezko abiadura 10 km/h-koa da.<br>c. Oinezkoek lehentasuna dute gainerako erabiltzaileekiko, eta, beraz, ibilgailu motordunek, bizikletek eta ziklomotorrek pasatzen utzi beharko diete.<br>d. Debekatuta dago gelditzea eta aparkatzea horretarako prestatutako guneetatik kanpo.<br>e. Eremu horietako zamalanak horretarako prestatutako eremuen barruan egingo dira.<br>2- Ibilgailu motordunen eta ziklomotorren trafikoarentzat itxita dauden orduetan, oinezkoen lehentasuneko gune bihurtzen dira. Oinezkoen eremuko sarrera-irteerak pilona hidrauliko automatikoen bidez kontrolatuko dira; bidea itxiko dute, ibilgailuen zirkulazioa debekatuta dagoenean, eta honako arau hauek aplikatuko dira:<br>a. Bi sarrerak seinaleztatuta daude, III. eranskinean jasotako D seinalearen bidez (R-100 + kameraren zaintza).<br>b. Ibilgailu motordunek eta ziklomotorrek debekatuta dute zirkulatzea<br>c. Debeku honetatik kanpo geratzen dira, pasatzeko baimena eskatu ondoren, ibilgailu hauek:<br>1- Suteak itzaltzeko zerbitzuko ibilgailuak, larrialdietakoak, anbulantziak, segurtasun-indar eta -kidegoen ibilgailuak, eta zerbitzu publikoa emateko funtzioa duten gainerako ibilgailuak.<br>2- Udal-zerbitzuetako, bide-garbiketako eta hondakinen bilketako ibilgailuak beren eginkizunetan dihardutenean, baita hileta-zerbitzuetako ibilgailuak eta hilkutxa laguntzen doazen senideenak ere.<br>V. eranskinean dago jasota bidea ibilgailuentzat itxita dagoen ordutegian igarotzeko baimena eskatzeko prozedura. | | **Artículo 45. Zona de convivencia peatonal y tráfico rodado**<br>Las vías recogidas en el Anexo II (1 GUNEA) son partes de carretera que en determinado horario permanecen cerradas al tráfico de vehículos a motor, VMP y ciclomotores.<br>1-En horario en el que se encuentran abiertas al tráfico de vehículos a motor y ciclomotores son zonas de circulación compartida, en las que las personas que circulan a pie tienen prioridad y en la que se aplican las siguientes normas:<br>a. Están señalizadas en ambas entradas mediante la señal C (formada por las señales S-28 + R301) recogida en el Anexo III.<br>b. La velocidad máxima es de 10km/h<br>c. Las personas que transitan a pie gozan de prioridad sobre el resto de usuarios/as de la vía por lo que los vehículos a motor, bicicletas y ciclomotores deberán cederles el paso.<br>d. Está prohibido parar y aparcar fuera de las zonas habilitadas para ello.<br>e. Las operaciones de carga y descarga se realizarán dentro de las zonas habilitadas al efecto.<br>2-En horario en el que se encuentran cerradas al tráfico de vehículos a motor y ciclomotores se convierten en zonas de prioridad peatonal. La entrada y salida estarán protegidas mediante un sistema de control de acceso consistente en pilonas hidraúlicas automáticas, que cerrarán la vía al tráfico rodado y en las que se aplican las siguientes normas:<br>a. Están señalizadas en ambas entradas mediante la señal D (formada por las señales R-100 + vigilancia cámara) recogida en el Anexo III.<br>b. Está prohibida la circulación de vehículos a motor y ciclomotores.<br>c. Quedan excluidos de esta prohibición, previa solicitud de autorización de paso, los siguientes vehículos:<br>1-Los de servicio de extinción de incendios, emergencias, ambulancias, fuerzas y cuerpos de seguridad, y todos aquellos que tengan inherente la prestación de servicios públicos.<br>2-En el ejercicio de sus funciones, a los de servicios municipales, limpieza viaria y recogida de residuos, así como a los de servicios funerarios y vehículos de familiares que acompañen al féretro.<br>En el Anexo V se recoge el procedimiento para solicitar autorización de paso en horario en el que la vía está cerrada al tráfico rodado. |

**ZIRKULAZIOARI ETA HERRI BARRUKO BIDEEN ERABILEREI BURUZKO UDAL ORDENANTZA**
ORDENANZA MUNICIPAL DE CIRCULACIÓN Y DE LOS USOS DE LAS VÍAS URBANAS

| | | |
|---|---|---|
| **46. artikulua. Bizikleta-erreia edo bizikleta-bidea**<br>II. eranskinean arautua (3. GUNEA) | | **Artículo 46. Carril bicicleta o vía ciclista**<br>Regulado en el Anexo II (3.GUNEA) |
| **47. artikulua. Bizikletek eta ibilgailu motordunek partekatutako erreia**<br>II. eranskinean arautua (4.GUNEA) | | **Artículo 47. Carril compartido bicicleta y vehículo a motor**<br>Regulado en el Anexo II (4.GUNEA) |
| **VI. TITULUA: GELDITZEA ETA APARKATZEA**<br><br>**I. KAPITULUA: SALGAIEN ZAMALANAK** | | **TITULO VI: LA PARADA Y EL ESTACIONAMIENTO**<br><br>**CAPÍTULO I: CARGA Y DESCARGA DE MERCANCÍAS** |
| **48. Artikulua**<br>Zamalanetarako eremutzat hartzen da bide publikoan horretarako mugatuta eta seinaleztatuta dagoen espazioa. Eremu horretan ibilgailuak aparkatu ahal izango dira zama-lanak egiteko behar-beharrezkoa den denboran.<br>Desgaitasuna duten Pertsonek Aparkatzeko Europako Txartelaren, ibilgailuaren barruan txartela ikusteko moduan erakusten badute, zamalanetarako gordetako guneetan gelditu edo aparkatu ahali izango dute, betiere oinezkoei edo trafikoari kalterik eragiten ez badiete. | | **Artículo 48**<br>Se considera zona de carga y descarga, el espacio sobre la vía pública delimitado y señalizado como tal, donde se permite el estacionamiento de vehículos por el tiempo estrictamente necesario para realizar las operaciones de carga y descarga.<br>Las personas titulares de la tarjeta europea de estacionamiento para personas con discapacidad siempre y cuando exhiban de forma visible la tarjeta en el interior del vehículo, podrán parar o estacionar en las zonas reservadas para carga y descarga, siempre que no ocasionen perjuicios a peatones o al tráfico. |
| **49. Artikulua**<br>Bide publikoan zamalanak egitea da: salgaiak higiezin edo merkataritza-lokal batetik aparkatutako ibilgailu batera eramatea, edo alderantziz, eta horretarako baimena duten ibilgailuen artean egitea eragiketa hori. | | **Artículo 49**<br>Se considera operación de carga y descarga en la vía pública, la acción de trasladar mercancías desde un inmueble o local comercial a un vehículo estacionado o viceversa y la realizada entre vehículos autorizados para dicha operación. |
| **50. Artikulua**<br>Salgaien zamalanak honela egingo dira:<br>a) Helburu horretarako gordetako eremuetan eta dagokion seinaleztapenean kasu bakoitzerako adierazten diren ordutegietan. Zeregin hori egiteko aparkatzeko gehieneko denbora 20 minutukoa izango da, Desgaitasuna duten Pertsonek Aparkatzeko Europako Txartelaren titularrentzat izan ezik, ordubetekoa izango baita.<br>b) Salgaiak ibilgailuaren atzealdetik edo galtzadaren edo deskarga-gunearen ertzetik hurbilen dagoen aldetik kargatu eta deskargatuko dira, betiere oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioa ez oztopatzeko eta finka eta merkataritza-lokaletarako sarbidea ez oztopatzeko beharrezko bitartekoak erabiliz, eta, betiere, beharrezkoak ez diren zaratak edo eragozpenak saihestuz.<br>c) Zamalanetako salgaiak zuzenean eramango dira finkatik edo lokaletik ibilgailura, edo alderantziz. Salbuespenez, salgaiak bide publikoan uztea ezinbestekoa denean, ez zaie arrisku edo eragozpen larririk eragingo bidearen erabiltzaile diren gainerako zerbitzuei.<br>d) Zamalanak egiten diren bitartean oinezkoentzat edo ibilgailuentzat arriskuren bat badago, eremua babestu eta seinaleztatu beharko da.<br>e) Salgai gogaikarri, kaltegarri, osasungaitz edo arriskutsuen zamalanak, bai eta horiek maneiatzeko berezitasunak dakartzatenak ere, gai hori arautzen duten berariazko xedapenek arautuko dituzte | | **Artículo 50**<br>La carga y descarga de mercancías se realizará:<br>a) En las zonas reservadas para este fin y en los horarios que para cada caso se indiquen en la señalización correspondiente. El tiempo máximo de estacionamiento para realizar esta tarea será de 20minutos, excepto para personas titulares de la tarjeta europea de estacionamiento para personas con discapacidad que será de una hora.<br>b) Las mercancías se cargarán y descargarán por la parte trasera del vehículo o por su parte más próxima al borde de la calzada o punto de descarga, utilizando en todo caso los medios necesarios para no obstaculizar la circulación de peatones ni vehículos, ni obstruir el acceso a fincas y locales comerciales, evitando en todo caso ruidos o molestias innecesarias.<br>c) Las mercancías objeto de carga descarga serán trasladadas directamente de la finca o local al vehículo o viceversa, excepcionalmente cuando sea inexcusable depositar las mercancías en vía pública, deberá hacerse sin ocasionar peligro ni perturbación al resto de servicios o usuarios<br>d) En caso de existir algún peligro para peatones o vehículos durante la realización de las operaciones de carga o descarga, se deberá proteger y señalizar la zona.<br>e) Las operaciones de carga y descarga de mercancías molestas, nocivas, insalubres o peligrosas, así como las que entrañen especialidades en su manejo, se regirán además, por las disposiciones específicas que regulan la materia. |

**ZIRKULAZIOARI ETA HERRI BARRUKO BIDEEN ERABILEREI BURUZKO UDAL ORDENANTZA**
ORDENANZA MUNICIPAL DE CIRCULACIÓN Y DE LOS USOS DE LAS VÍAS URBANAS

| **II. KAPITULUA: GELDITZEA ETA APARKATZEA** | | **CAPÍTULO II: PARADA Y ESTACIONAMIENTO** |
|---|---|---|
| **51. Artikulua**<br>Ibilgailua herri barruko bidean gelditu eta aparkatzeko, ibilgailua galtzadaren eskuineko ertzetik ahalik eta hurbilen egon beharko da, noranzko bakarreko bideetan izan ezik, horiek ere ezkerraldean egin ahal izango baitira, betiere kalearen zabalerak bertatik ibilgailuak ibiltzea ahalbidetzen badu eta aparkatzea debekatzen duen seinalerik ez badago. Nolanahi ere, debekatuta dago behar baino leku gehiago hartzea eta hogeita bost zentimetro baino gehiago uztea espaloiaren zintarriaren eta ibilgailuaren gurpilen kanpoko aldearen artean. Oinezkoen lehentasuneko eremuetan, ordenantza honen 44.5 artikuluan azaldutakoaren arabera arautuko da geldialdia. | | **Artículo 51**<br>La parada y estacionamiento de un vehículo en vía urbana deberá efectuarse situando el vehículo lo más cerca posible del borde derecho de la calzada, salvo en vías de sentido único que podrá efectuarse también en el lado izquierdo, siempre que la anchura de la calle permita el tránsito de vehículos por la misma y no haya señalización que lo impida. En todo caso se prohíbe ocupar mayor espacio del necesario y dejar más de veinticinco centímetros entre el bordillo de la acera y la superficie exterior de las ruedas del vehículo. En las zonas de prioridad peatonal la parada se regirá por lo expuesto en el artículo 44.5 de la presente ordenanza. |
| **52. Artikulua**<br>Gelditzea eta aparkatzea zirkulazioa oztopatu gabe eta bidearen gainerako erabiltzaileak arriskuan jarri gabe egin behar da. Arreta berezia jarriko da ibilgailuaren kokapenean, eta gidaria ez dagoenean ibilgailua mugitzea saihestu behar da. | | **Artículo 52**<br>Tanto la parada como el estacionamiento deberán efectuarse de tal manera que el vehículo no obstaculice la circulación ni constituya un riesgo para el resto de usuarios de la vía, cuidando especialmente la colocación del mismo y evitando que pueda ponerse en movimiento en ausencia del conductor. |
| **53. Artikulua**<br>Ibilgailuek horretarako prestatutako espazioetan aparkatu beharko dute, zoladuran markatutako perimetroaren barruan; aparkalekua mugatzen duen bide-markarik ez badago, erabilgarri dagoen espazioa ahalik eta gehien aprobetxatuz aparkatuko dute. | | **Artículo 53**<br>Los vehículos deberán estacionar en los espacios habilitados para ello, dentro del perímetro marcado en el pavimento, en caso de que no existan marcas viales que delimiten el aparcamiento, deberán estacionar aprovechando al máximo el espacio disponible |
| **54. Artikulua**<br>Aparkatuta dagoen ibilgailu batek zirkulazioa trabatu edo oztopatzen badu, edo gainerako erabiltzaileentzat arriskua badakar, udaltzainek bide publikotik kendu ahal izango dute ibilgailua. | | **Artículo 54**<br>Si un vehículo estuviera estacionado de forma que entorpeciera u obstaculizara la circulación o constituyera un riesgo para el resto de los usuarios de la vía, agentes de la Policía Municipal podrán proceder a su retirada de la vía pública. |
| **55. Artikulua**<br>3500kg-tik gorako BGMa duten ibilgailuen atoiek, erdiatoiek edo antzekoek eta bidaiariak garraiatzeko ibilgailuek debekatuta dute udal-mugartearen barruan aparkatzea, horretarako prestatutako lekuetan (II. Eranskina 2. GUNEA) eta seinaleztapenean zehaztutako baldintzetan izan ezik. Debeku horretatik salbuetsita daude agintaritza eskudunaren baimena dutenak. | | **Artículo 55**<br>Se prohíbe el estacionamiento de remolques, semirremolques o similares, de toda clase de vehículos de MMA superior a 3500kg y vehículos de transporte de viajeros dentro del término municipal, excepto en aquellos lugares habilitados al efecto (Anexo II-2.GUNEA) y en las condiciones que especifique la señalización. Quedan exentos de esta prohibición aquellos que cuenten con la autorización de la autoridad competente. |
| **56. Artikulua**<br>Ibilgailu motordunetik bereizitako atoiak eta karabanak ezin izango dira bide publikoetan aparkatu, Udal Agintaritzak ezarritako baldintza, leku eta aldietan izan ezik.<br>5metro baino luzera haundiagoa duten ibilgailak oro har, lineako aparkalekua baimenduta dagoen lekuetan aparkatuko dira, seinaleztatutako perimetroaren barruan. Baterian aparkatu ahal izango dute, baldin eta neurriak aparkaleku-plaza gisa seinaleztatutako perimetroa gainditzen ez badu eta galtzada edo espaloia inbaditzen ez badu. | | **Artículo 56**<br>No se podrá estacionar en las vías públicas, remolques ni caravanas separados del vehículo motor, excepto en los términos, lugares y períodos que pudieran ser habilitados por la Autoridad Municipal.<br>Los vehículos de longitud superior a 5metros estacionarán en aquellas zonas en las que se permita el aparcamiento en línea y dentro del perímetro señalizado. Sólo podrán estacionar en batería en aquellos casos en los que su dimensión no sobrepase el perímetro señalizado como plaza de aparcamiento y no invadan la calzada ni la acera. |
| **57. Artikulua**<br>Motorrek eta ziklomotorrek berariaz horretarako seinaleztatutako lekuetan aparkatuko dute. Horrelako ibilgailuak aparkatzeko gunerik ez badago, seinaleztatutako aparkaleku-bandetan aparkatuko dute, zintarriarekiko perpendikularrean, zirkulazio-erreian sartu gabe eta ahalik eta toki gutxien hartuta. Ezin izango | | **Artículo 57**<br>Las motocicletas y ciclomotores estacionarán en los espacios específicamente señalizados para tal fin. En caso de que no existan zonas reservadas para su estacionamiento, estos vehículos estacionarán en las bandas de aparcamiento señalizadas, perpendicularmente al bordillo, sin invadir carril de circulación y |

| | | |
|---|---|---|
| dute bizikletak aparkatzeko barretan aparkatu. | | ocupando el menor espacio de aparcamiento posible. No podrán estacionar en las barras destinadas a aparcamiento de bicicletas. |
| **58. Artikulua**<br>Ibilgailu bat ezin izango da bide publikoko leku berean aparkatu jarraian 30 egun baino gehiagotan. | | **Artículo 58**<br>No podrá estacionarse un vehículo en el mismo lugar de la vía pública de forma continuada durante más de 30 días consecutivos. |
| **59. Artikulua**<br>Autobusak ezin izango dira egon garraio publikoko geralekuetan bidaiariak hartu edo uzteko behar den denbora baino gehiago.<br>48. artikulutik 56. Artikulura bitarteko arau-hausteak ARINZAT edo LARRITZAT hartuko dira sortutako enbarazu edo arriskuaren arabera. | | **Artículo 59**<br>Los autobuses no podrán permanecer en las paradas de transporte público establecidas, más tiempo que el necesario para tomar o dejar viajeros.<br>Las infracciones de los artículos 48 al 59 tendrán la consideración de LEVE o GRAVE atendiendo a las situaciones de molestia o riesgo creadas. |
| **60. Artikulua**<br>Salgai arriskutsuak garraiatzeko edozein motatako ibilgailuek, hutsik zein kargatuta egon, debekatuta dute udalerriko bide publikoetan gelditzea eta aparkatzea, agintari eskudunak aurretik baimendutako lekuetan izan ezik.<br>Artikulu hau urratzea arau-hauste OSO LARRIA izango da. | | **Artículo 60**<br>Quedan prohibidas la parada y el estacionamiento de cualquier tipo de vehículo de transporte de mercancías peligrosas, tanto si se halla vacío como cargado, en cualquier vía pública del término municipal, excepto en los lugares previamente autorizados por la autoridad competente<br>La infracción a este artículo tendrá la consideración de MUY GRAVE |
| **III. KAPITULUA: DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO APARKALEKUAK** | | **CAPÍTULO III: ESTACIONAMIENTO PARA PERSONAS CON DISCAPACIDAD** |
| **61. Artikulua**<br>Mugikortasun urriko pertsonentzat gordetako aparkalekuetan, martxoaren 22ko 50/2016 Dekretuan arautitako Desgaitasuna duten Pertsonek Aparkatzeko Europako Txartelaren titularrak diren mugikortasun urriko pertsonen ibilgailuak bakarrik aparkatu ahal izango dira, baldin eta aparkatzeko txartela ibilgailuaren zipriztindegian edo aurreko haizetakoari itsatsita badute, jatorrizko dokumentuarekin betiere, haien aurrealdea kanpotik argi irakurtzeko moduan.<br>Artikulu hau urratzea arau-hauste LARRIA izango da. | | **Artículo 61**<br>Únicamente podrán estacionar en las zonas de aparcamiento reservadas para personas con movilidad reducida, los vehículos de personas con movilidad reducida titulares de la Tarjeta Europea de Estacionamiento para Personas con Discapacidad regulada en el Decreto 50/2016 de 22 de marzo, que tengan la tarjeta de estacionamiento colocada en el salpicadero del vehículo o adherida al parabrisas delantero, siempre con el documento original, de forma que su anverso resulte claramente legible desde el exterior.<br>La infracción a este artículo tendrá la consideración de GRAVE |
| **62. Artikulua**<br>Desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartelak horretarako adierazitako lekuetan aparkatzeko balio izango du, baita aparkatzea debekatuta dagoen lekuetan aparkatzeko ere, behar den denboran, baldin eta txartel horren titularra bada ibilgailua gidatzen duena edo bertan garraiatua dena edo garraiatua izango dena, eta gainerako erabiltzaileak oztopatzen edo arriskuan jartzen ez badira, salbuespen hauekin:<br>1. Ibilgailuen edo oinezkoen zirkulazioa oztopatzen edo arriskuan jartzen den lekuetan.<br>2. Oinezkoen guneak, espaloiak eta oinezkoen pasabideak<br>3. Gelditzeko debekuan.<br>4. Ibiak edo larrialdietako irteerak oztopatzen dituzten lekuak.<br>**5.** Zirkulazio-erreiak murrizten dituzten espazioak (“lerro bikoitzak”).<br>Artikulu hau urratzea arau-hauste LARRIA izango da. | | **Artículo 62**<br>La tarjeta de estacionamiento para personas con discapacidad será válida para estacionar en los lugares señalados al efecto e incluso en los lugares de estacionamiento prohibido durante el tiempo indispensable, única y exclusivamente cuando la persona titular de la misma sea quien conduzca el vehículo o haya sido o vaya a ser transportada en él y siempre que no se obstaculice ni se ponga en peligro al resto de usuarios/as y con las siguientes excepciones:<br>1. En lugares en los que se obstaculice o se ponga en peligro la circulación de vehículos o peatones.<br>2. Zonas peatonales, aceras y pasos de peatones.<br>3. En lugares donde esté prohibida la parada.<br>4. Lugares que obstruyan vados o salidas de emergencia.<br>5. Espacios que reduzcan carriles de circulación (“dobles filas”).<br>La infracción a este artículo tendrá la consideración de GRAVE |
| **63. Artikulua. Behin-behineko baimenak**<br>Desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartela emateko eta erabiltzeko oinarrizko baldintzak arautzen dituen abenduaren 12ko 1056/2014 Errege Lege Dekretuaren lehenengo xedapen | | **Artículo 63. Autorizaciones provisionales**<br>Se regirá según lo dispuesto en la Disposición adicional primera del RDL 1056/2014 de 12 de diciembre, por el que se regulan las condiciones básicas de emisión y uso de la tarjeta de |

| | | |
|---|---|---|
| gehigarrian xedatutakoaren arabera arautuko da. | | estacionamiento para personas con discapacidad. |
| **64. Artikulua**<br>Desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartela erabiltzeari buruzko punturen bat ez betetzea azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuaren 94.2.d artikuluaren arau-haustea izango da, eta ibilgailua kendu ahal izango da urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 105. Artikuluaren arabera (Trafikoari, Ibilgailu guztien Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena).<br>Era berean, Eusko Jaurlaritzaren martxoaren 22ko 50/2016 Dekretuaren 8. Artikuluan oinarrituta (desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartela arautzen duena), txartela kendu ahal izango da, eta txartela eman duen udaleko gizarte-zerbitzuen eskura jarriko da. | | **Artículo 64**<br>El incumplimiento de alguno de los puntos referentes al uso de la tarjeta de estacionamiento para personas con discapacidad, será constitutivo de infracción al artículo 94.2.d del Real Decreto 1428/2003 de 21 de noviembre y el vehículo podrá ser retirado en virtud al artículo 105 del Real decreto Legislativo 6/2015 de 30 de octubre por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Tráfico, Circulación de todos los Vehículos y Seguridad Vial.<br>Así mismo en base al artículo 8 del Decreto 50/2016 del Gobierno Vasco de 22 de marzo por el que se regula la tarjeta de estacionamiento para personas con discapacidad, se podrá retirar la tarjeta en cuestión poniéndola a disposición de los Servicios Sociales del Ayuntamiento que lo haya expedido. |
| **IV. KAPITULUA. IBIA** | | **CAPÍTULO IV. VADO** |
| **65. Artikulua**<br>Ibitzat hartuko da halakotzat seinaleztatutako bide publikoko eremua, higiezin bateko ibilgailuen sarrera eta irteera barne hartzen dituena, eta etengabe oztoporik gabe dagoena. IBI seinaleaz gain eremua pintura horiz markatuta badago, pasabidearen eragin-eremua seinaleak hartzen duen eremura zabalduko da. 3 metroko edo gutxiagoko zabalera duten galtzadetan, IBI seinalearen eragin-eremua galtzadaren beste aldera zabalduko da, ibilgailuak eraikinera sartu eta irteteko maniobra errazteko.<br>Artikulu hau urratzea arau-hauste LARRIA izango da. | | **Artículo 65**<br>Se considerará como VADO la zona de vía pública señalizada como tal, que comprende la entrada y salida de vehículos de un inmueble, la cual está expedita de obstáculos de forma permanente. Cuando la señal de vado esté acompañada por pintura vial amarilla, la zona de influencia del vado se extenderá al área que ocupe la pintura. En las calzadas de ancho igual o inferior a 3 metros, el área de influencia de la señal de VADO se extenderá al lado opuesto de la calzada frente a dicha señal, con objeto de facilitar las maniobras entrada y salida de los vehículos del inmueble<br>La infracción a este artículo tendrá la consideración de GRAVE |
| **VII. TITULUA. BEHIN-BEHINEKO NEURRIAK**<br><br>**I. KAPITULUA. Ibilgetzea eta ibilgailua kentzea** | | **TITULO VII. MEDIDAS PROVISIONALES**<br><br>**CAPÍTULO I. Inmovilización y retirada del vehículo** |
| **66. Artikulua. Ibilgailua ibilgetzea**<br>Ibilgailua ibilgetu ahal izango da honako kasu hauetan:<br>1. Ibilgailuak ez badu zirkulatzeko administrazio-baimenik, ez duelako lortu edo deuseztatu egin delako edo indarrik gabe utzi delako.<br>2. Ibilgailuak bide-segurtasunerako arrisku berezia dakarten akatsak baditu<br>3. Gidariak edo bidaiariak babes-kaskoa ez erabiltzea, nahitaezkoa den kasuetan. Neurri hau ez zaie txirrindulariei aplikatuko.<br>4. Alkohola edo drogak detektatzeko probak egiteari uko egitea, edo proba horiek emaitza positiboa ematea.<br>5. Ibilgailuak nahitaezko asegururik ez izatea<br>6. Arau-hausleak ez badu egiaztatzen legezko bizilekua Estatuan duela, agente salatzaileak ezarriko du, behin-behinean, isunaren zenbatekoa, eta, zenbatekoa gordailutu ezean, ibilgailua gidatzen duenak eraman eta ibilgetu beharko du, agente salatzaileak adierazitako lekuan. Gordailua kreditu-txartelaren bidez edo dirutan (eurotan) egin ahal izango da, eta, nolanahi ere, kontuan hartuko da 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuan aurreikusitakoa, hasieran ezarritako isuna % 50 murrizteko aukerari dagokionez. | | **Artículo 66. Inmovilización del vehículo**<br>Se podrá proceder a la inmovilización del vehículo cuando:<br>1. El vehículo carezca de autorización administrativa para circular, bien por no haberla obtenido o porque haya sido objeto de anulación o declarada su pérdida de vigencia.<br>2. El vehículo presente deficiencias que constituyan un riesgo especialmente grave para la seguridad vial<br>3. Quien conduzca o la persona pasajera no hagan uso del casco de protección, en los casos en que fuera obligatorio. Esta medida no se aplicará en el caso de las bicicletas.<br>4. Tenga lugar la negativa a efectuar las pruebas de detección de alcohol o drogas, o estas arrojen un resultado positivo.<br>5. El vehículo carezca de seguro obligatorio<br>6. Cuando quien cometa la infracción no acredite su residencia legal en el Estado, el/la agente denunciante fijará provisionalmente la cuantía de la multa y, de no depositarse su importe, quien conduce el vehículo deberá trasladarlo e inmovilizarlo en el lugar indicado por el/la agente denunciante. El depósito podrá efectuarse mediante tarjeta de crédito, o en metálico en euros, y en todo caso, se tendrá en cuenta lo previsto en el RDL 6/2015 respecto a la posibilidad de reducción del 50% de |

| | | |
|---|---|---|
| **7.** Ibilgetzea eragin zuen arrazoia amaitzen denean kenduko da ibilgetzea. | | la multa inicialmente fijada.<br>7. La inmovilización se levantará en el momento en que cese la causa que la motivó. |
| **Ibilgailua erretiratzea eta gordailutzea**<br>**67. artikulua**<br>Trafikoa kudeatzeko ardura duen Agintaritzak, hartara behartuta dagoenak egin ezean, ibilgailua bidetik kendu eta biltegira eraman ahal izango du, honako kasu hauetan:<br>1. Beste ibilgailuen edo oinezkoen zirkulaziorako arriskua sortzen duenean, zirkulazio-nahasmen larriak eragiten dituenean edo zerbitzu edo ondare publikoa hondatzen duenean.<br>2. Martxan jarraitzea galarazten duen istripua gertatu denean.<br>3. Legez ibilgailua ibilgetzea bidezkoa izanik, hori egitea ezinezkoa denean ibilgailuen edo pertsonen zirkulazioa oztopatu gabe.<br>4. 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 104. Artikuluan xedatutakoaren arabera ibilgailu bat ibilgetu ondoren, 24 ordu igarota, ibilgetzea eragin zuten arrazoiak amaitzen ez direnean.<br>5. Ibilgailu bat udal-agintaritzak mugikortasun mugatuko pertsonentzat gordetako aparkaleku gisa egokitutako lekuetan aparkatuta egotea, Europako desgaituentzako aparkatze-txartelik gabe.<br>6. Ibilgailu bat erabiltzaile jakin batzuentzat bakarrik gordetako bide-zatietan edo zamalanetarako guneetan aparkatuta dagoenean, salbu eta mugikortasun urriko pertsonen ibilgailuak gelditzea edo aparkatzea, desgaitasunen bat duten pertsonentzako Europako aparkatze-txartelaren titularrak badira.<br>7. Ibilgailu bat udal-agintaritzak ordutegi mugatuko aparkaleku gisa gaitutako lekuetan aparkatuta dagoenean, horretarako baimena ematen duen bereizgarria jarri gabe.<br>8. Behar bezala gelditua edo aparkatuta dagoen beste ibilgailu bati zirkulazioan jartzea eragozten zaionean.<br>9. Pertsonak edo animaliak sartzeko edo irteteko bidea normaltasunez erabili ahal izatea oztopatzen badu, edo behar bezala seinaleztatutako ibia oztopatzen badu.<br>**10.** Aurreko lerrokadetan jaso ez arren, gelditzeek edo aparkatzeek arrisku larrian jartzen edo larriki oztopatzen duenean ibilgailuen edo animalien trafikoa. | | **Retirada y depósito del vehículo**<br>**Artículo 67**<br>La autoridad encargada de la gestión del tráfico podrá proceder, si el obligado no lo hiciera, a la retirada del vehículo de la vía y su depósito en el lugar que se designe, en los siguientes casos:<br>1. Constituya peligro, cause graves perturbaciones a la circulación de vehículos o peatones o deteriore algún servicio o patrimonio público.<br>2. En caso de accidente que impida continuar su marcha<br>3. Cuando procediendo legalmente a la inmovilización del vehículo, no hubiere lugar adecuado para practicarla sin obstaculizar la circulación de vehículos o personas<br>4. Cuando inmovilizado de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 104 del RDL 6/2015, transcurridos 24 horas, no cesasen las causas que motivaron la inmovilización.<br>5. Cuando un vehículo permanezca estacionado en lugares habilitados por la autoridad municipal como zonas de aparcamiento reservado para el uso de personas con movilidad reducida sin tener la tarjeta europea de estacionamiento para personas con discapacidad.<br>6. Cuando un vehículo permanezca estacionado en las partes de las vías reservadas exclusivamente para determinados usuarios o en las zonas de carga y descarga salvo la parada o estacionamiento de los vehículos de personas con movilidad reducida titulares de la tarjeta europea de estacionamiento para personas con discapacidad.<br>7. Cuando un vehículo permanezca estacionado en lugares habilitados por la autoridad municipal como de estacionamiento con limitación horaria sin colocar el distintivo que lo autoriza.<br>8. Cuando impida incorporarse a la circulación a otro vehículo debidamente parado o estacionado.<br>9. Cuando se obstaculice el uso normal del paso de salida o acceso a un inmueble de personas o animales, o en un vado señalizado correctamente.<br>10. Las paradas o estacionamientos que, sin estar incluidos en los párrafos anteriores, constituyan un peligro u obstaculicen gravemente el tráfico de peatones, vehículos o animales. |
| **68. Artikulua**<br>Lapurreta izan denean edo titularraren borondatearen aurka ibilgailua beste moduren batean erabili denean izan ezik, behar bezala justifikaturik, ibilgailua erretiratzearen ondorioz sortzen diren gastuak titularraren, errentariaren edo ohiko gidariaren kontura izango dira, kasuaren arabera, eta ibilgailua itzuli aurretik ordaindu beharko ditu. | | **Artículo 68**<br>Salvo en casos de sustracción u otras formas de uso del vehículo en contra de la voluntad de su titular, debidamente justificadas, los gastos que se originen como consecuencia de la retirada serán por cuenta del titular, del arrendatario o del conductor habitual, según el caso, y deberá abonarlos como requisito previo a la devolución del vehículo. |
| **69. Artikulua**<br>Administrazioak, 24 orduko epean, ibilgailua eraman eta gordailutu izana jakinarazi behar dio titularrari. | | **Artículo 69**<br>La administración comunicará al titular  la retirada y depósito del vehículo en el plazo de 24horas. |

**ZIRKULAZIOARI ETA HERRI BARRUKO BIDEEN ERABILEREI BURUZKO UDAL ORDENANTZA**
ORDENANZA MUNICIPAL DE CIRCULACIÓN Y DE LOS USOS DE LAS VÍAS URBANAS

| | | |
|---|---|---|
| **II. KAPITULUA: IBILGAILU BATEN HONDAKINEN TRATAMENDUA.** | | **CAPÍTULO II: TRATAMIENTO RESIDUAL DE UN VEHÍCULO.** |
| **70. Artikulua**<br>Trafikoaren arloan eskumena duen administrazioak ibilgailua Ibilgailuen Tratamendurako Zentro Baimendu batera eramateko agindu ahal izango du, suntsitzeko eta deskontaminatzeko, honako kasu hauetan:<br>1. Hilabete baino gehiagoz leku berean aparkatuta dagoenean eta/edo bere kabuz mugitzea eragozten duten kalteak dituenean edo matrikula-plakak falta zaizkionean.<br>2. Ulertuko da ibilgailu bat ezin dela bere kabuz mugitu, hemen zehazten diren baldintza tekniko bi edo gehiago ez baditu:<br>a. Abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren III. Eranskinean ezarritako atzeraispilurik ez izatea.<br>b. Jarlekuak, gidariarena edo laguntzailearena, ez egotea erresistentziaz loturik ibilgailuaren egiturari.<br>c. Gurpilen bat falta izatea edo pneumatikoak zirkulatzeko baldintzarik ez izatea.<br>d. Bidea garbi ikustea eragozten duten apurketak izatea.<br>e. Gidariak ibilgailuaren norabidea mantentzeko eta segurtasunez aldatzeko mekanismo egokirik ez izatea.<br>Ibilgailua eramateko agindua eman aurretik, administrazioak errekerimendua egingo dio titularrari, eta ohartaraziko dio hilabeteko epean ibilgailua bide publikotik kendu ezean, Tratamendurako Zentro Baimendura eramango dela.<br>Gasturen bat sortuko balitz, ibilgailuaren titularraren kontura izango litzateke. | | **Artículo 70**<br>La administración competente en materia de tráfico podrá ordenar el traslado del vehículo a un Centro Autorizado de Tratamiento de Vehículos para su posterior destrucción y descontaminación en los siguientes casos:<br>1. Cuando permanezca estacionado por un periodo superior a un mes en el mismo lugar y/o presente desperfectos que hagan imposible su desplazamiento por sus propios medios o le falten las placas de matrícula.<br>2. Se considera que un vehículo no puede desplazarse por sus propios medios cuando carezca de dos o más de las condiciones técnicas que se detallan:<br>a. Carezca espejos retrovisores establecidos en el anexo III del RD 2822/1998 de 23 diciembre<br>b. No tenga asientos de conductor o acompañante anclados a la estructura del vehículo de forma resistente.<br>c. Esté desprovisto de alguna de sus ruedas o el neumático no presente condiciones para la circulación<br>d. El vehículo presente roturas tales que no permitan una visión diáfana de la vía.<br>e. No disponga de mecanismos adecuados que permitan al conductor mantener la dirección del vehículo y modificarla con seguridad.<br>Con anterioridad a la orden de traslado del vehículo, la administración requerirá a su titular advirtiéndole que de no proceder a su retirada de la vía pública en el plazo de un mes, se procederá a su traslado al Centro Autorizado de Tratamiento. En caso de que se generase algún gasto, correría a costa de la persona titular del vehículo. |
| **VIII. TITULUA.**<br><br>**I. KAPITULUA. ZEHAPEN-PROZEDURA** | | **TÍTULO VIII.**<br>**CAPÍTULO I. PROCEDIMIENTO SANCIONADOR** |
